



Jon Díez - Iker Sedano
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Iñigo Aranbarri	2
Sarrera	2

Zamaontzia

● Kokapena	2
● Gaia	3
● Argumentua	3
● Istorioa	4
● Pertsonaiak	5
● Egituraketa	5
● Baliabideak	5
● Iritzia	6
Bibliografia eta webgrafia	7

Iñigo Aranbarri

Iñigo Aranbarri 1963an Azkoitian (Gipuzkoa) jaiotako euskal idazlea da. Gaur egun, idazle izateaz gain, irakasle lanean dihardu. Gaztea zenean, poesia idazten zuen, baina benetan ateak ireki zizkiona prosazko liburuak izan ziren; hala ere, poesiako hainbat liburu ere argitaratu ditu.

Hasiera batean literatura aldizkarietan lan egin zuen; horrela, *Susa* aldizkariaren zuzendaria izatera ailegatu zen eta, ondoren, argitaletxe honek sortutako *Bazka*-n zuzendari aritu zen.

1986an, 23 urte zituela, bere lehen poesia-liburua aurkeztu zuen, *Jonas Poisson*, eta honekin pixkanaka idazle lanean murgiltzen hasi zen. 1989an, *Dordokak eta Elurrak* izeneko bere bigarren poesia lana aurkeztu zuen. 1994tik aurrera prosari garrantzia handiagoa eman zion eta zortzi obra argitaratu zituen, nobelen eta saiakeren artean, lau bakoitzeko. *Zamaontzia* bere hirugarren nobela da, 2011. urtean argitaratuta, *Susa* argitaletxean.

Sarrera

Zamaontzia 2011n argitaratutako Iñigo Aranbarriren hirugarren nobela da. Nerea Vallejo protagonista nagusitzat hartuta, 13 urte zituenean bizi izandako bakardadea leporatzen dio bere aitari, bai lagunengandik bai amagandik baztertutako nerabezaroa bizi baitzuen Nereak.

Bilboko inguruetan gauzatzen dira gertaera nagusiak, Abra itsasadarrean hain zuzen ere, bere aitona Mateo Vallejorekin batera. Lantzen den gai nagusia, bakardadea, Nerearen pertsonaiarengan islatzen da; abandonatutako haurrak, aitona Mateoren bidez azaltzen du, jaiotze bezain laster bere amaren magaletik aldentuta izan zena; immigrazioarekin lotutako arazoak, Edwin marinelaren istorioa kontatuz azaltzen duena, portura iristean ezin zelako ez sartu ez irten.

Kokapena

Nereak, 28 urterekin, 13 urte zituenean gertatutako istorioa kontatzen dio bere aitari, bere emaztearengandik banatzean inguruan gertatzen zenari arreta jartzeari utzi baitzion. Kontakizun honen helburua, bere aitari galdutakoaz ohartaraztea da, hitz gorroren eta doinu mingarriaren bidez.

Zamaontziaren etorrerarekin hasten da kontakizuna eta hortik abiatuta hiru istorio ezberdin gurutzatzen dira Nerearen istoriotik abiatuta. Lehenengoa, Nerearen ingurukoa, nerabea zeneko bizi zuen bakardadea da, bere aitari atxikitzen diona. Bigarrenik, aitona Mateok haurtzaroan bizi izan zuen tragedia, haur lapurtua izan zen. Azkenik, Edwinen immigrazio arazoak, *Serenity Star*-en etorrerarekin erlazionatutakoa.

Gaia

Liburu honen gai nagusia Nereak nerabezaroan pairatutako bakardadea da. Hortik abiatuta Iñigo Aranberrik beste hainbat gauzei buruz ere idazten du; *Serenity Star*-aren agerpena, marinelen immigrazio eta haur lapurtuen inguruko arazoak.

Argumentua

Nerea bere aitarekin haserre bizi da, duela 15 urte aitak arazoetan murgilduta egoteagatik inguruan gertatzen ari zena galdu zuelako.

Nereak hamahiru urte zituenetik galdutako gauzak kontatzen dizkio aitari, hitz gogorak erabiliz, aitaren kontra eginez.

Gurasoak bereizi egin ziren; alde batetik aita eta Nerea aitona Mateorekin bizitzera joan ziren eta, bestetik, ama Londresera joan zen minbiziaren ondorioz. Honek bakardadera bultzatu zuen Nerea, bere bizitzatik aldendu baitzen eta beste gauza batzuen artean, lagunekiko harremana galdu zuelako. Aitonarekin pixkanaka harremana hobetuz doa. Egun batean *Serenity Star* zamaontzia Abrako itsasadarrean agertzen da. Bertan marinela abandonatuak daude, ez dutelako ateratzeko posibilitaterik, kanpotarrak baitira, Aljeriakoak eta Filipinetakoak adibidez. Nerea horietako batekin harremanetan jartzen da, Edwin izenekoa, eta pertsonaia horren bidez Itsasontzi eta etorkinei buruzko arazoak islatzen ditu. Egun batean lehengusinak deitzen dio eta Nereak bere aitonaren iragana ezagutzen du: haur lapurtu bat zen.

Azkenean, Abran denbora luzean egon eta gero, beraien herrialdeetara itzultzea lortzen dute, guztiek Edwinek izan ezik, Bilbon geratzea erabaki baitu.

Istoriaoa

Liburu honen istorio nagusia hiru zati ezberdinetan bereiz daiteke. *Serenity Star*-ren etorrera, Nerearen amorrua aitarekiko eta aitite Mateoren haurtzaroa.

Nerearen istorioa garrantzitsuena da, Nereak bere aitari kontatzen dio zergatik zegoen haserre berarekin eta horrekin hasten da istorio guztia. Nerearen gurasoak banandu zirenean, ama beste herrialde batetara joan zen bizitzera minbizia zela eta. Nerea bere aitarekin joaten da bizitzera bere aitite Mateoren etxera, Abrako itsasadarrean. Hala ere, Nerearen aitarentzat munduan igaro ez balitu bezalako urteak izan ziren horiek.

Serenity Star-ren etorrera ere, Abrako itsasadarrean, istorioaren momentu oso garrantzitsua da, horretan gainerako kontakizunak oinarritzen baitira; izan ere, gertaera hau erreal da eta XX. mendean gertatu zen. Mateo eta Nerea denbora asko ematen dute zamaontziari begira, berari buruz hitz egiten, eta honi esker haien harremana gero eta estuagoa da. Zamaontziaren agerpenari esker, Edwin agertzen da, eta honetan oinarriturik, Nereak etorkinen arazoei buruz konta dezake.

Lehen esan bezala, Nerea eta bere aitite Mateoren harremana gero eta hobea da eta azkenean horri esker Nereak Mateori buruzko egiaz jabetzen da, ume lapurtu bat izan zela. Nereak azaltzen digu, garai hartan eta Mateo jaio zen lekuan, nahiko ohikoa zela haurrak lapurtzea eta mundu ilun horretan barneratzen du irakurlea.

Pertsonaiak

Istorian zehar hainbat pertsonaia agertzen dira, hala ere, horietako askok ez dute garrantzirik istorioaren garapenean. Nerea, bere aita, Mateo Vallejo eta Edwin dira benetan garrantzia duten pertsonaiak.

Nerea. Argi dago istorioko pertsonaia nagusia Nerea dela. 28 urte dituenean bere aitari kontatzen dizkio 15 urte lehenago galdu zituen bizipenak edo gertaerak, Nereak 13 urte zituenean. Guztia gurasoak banatzean hasten da, Nerea bere mundutik aldendu eta aitarekin Mateoren etxera bizitzera joan behar izan zuenean. Hortik aurrera bere inguruan makina bat gauza gertatzen dira, eta horiek dira hain zuzen ere liburuan islatzen direnak. Kontaketa hau egitea erabakitzen du sentitzen duelako gaztea zenean bere aita ez ziola kasurik egin, behar zuen arreta eman ez ziola sentitzen duelako.

Mateo Vallejo. Nerearen aitona da. Haur bat baino ez zenean, bi aldiz lapurtu zuten eta bere lehengusinari esker, Tere izenekoa, bere benetako familia ezagutzen du. Horrek bere bizitzan izugarrizko aldaketa dakar.

Nerearen aita. Garrantzi handiko pertsonaia da hori ere. Nerea gaztea zenean, aitak ia kasurik egin gabe bizi zen eta, ondorioz, Nerea bakardadean murgilduta sentitu zen. Hori dela-eta idazten du geroago Nereak istorioa; beraz, esan dezakegu aitaren papera funtsezkoa dela istorioaren existentzian.

Edwin. *Serenity Star*-eko marinela da, eta behin Bilbora ailegatuta, bere herrialdera itzuli ezin den bakarra da. Pertsonaia honen bidez, gainerako marinelen egoera hobeto ezagutu dezakegu. Edwinek, istorioa aurrera joan ahala, Nerearekin oso harreman estua garatzen du, baina egun batean alde egiten du eta ez da berari buruz gehiago jakiten.

Egituraketa

Kanpo egituraketari dagokionez, nobela 24 kapitulutan bananduta dago. Barne egituraren inguruan obra Nerearen bakarrizketa bat dela esan daiteke, bere aitari zuzenduta dagoena. Istorioa Nerea eta bere, aita aitonaren etxera aldatzen direnean hasten da, eta hortik aurrera gainerako gertakizunak azaltzen dira modu lineal batean.

Hala ere, duela hamabost urte gertatutakoaz hitz egiten duenez, etengabeko flash-back-a erabiltzen du.

Baliabideak

Lehenengo pertsonan idatzitako narrazioa da. Nereak, protagonista dena, narratzaile bezala ere jokatzen du. Bere inguruan duela urte batzuk gertatutakoa kontatzen duenez, badaki zer gertatu zen eta zer gertatuko den momentu oro. Bere buruari dagokionez, pentsamenduak, sentimenduak, etab. transmititzen ditu, baina beste pertsonaiei buruz hitz egitean, berriz, bakarrik kanpotik ikusten dena transmititu dezake.

Deskribapen luzeak agertzen dira gehienetan obran, zehaztasun handikoak, irakurlea leku guztietan erraztasun handiagorekin kokatzen laguntzen dutenak.

Elkarrizketak ere nobela osoan oso ohikoak dira:

—Nor da ? —entzun nuen Mateo Vallejo.

—Nor izango da ba? Ez duzu zenbakia ikusten ala? —egin zenion zarata.

Ukondoan gainean doi bat tentetua soina, entzuten ahalegindu nintzen. Lehiotik, zeru atal bat ikusten zen, argi-ilunetan.

—Eta?

Orain zu zinen hizketan ari zinena. Luze egon zinen.

—Ez dut uste, baina esango diot. Zaude lasai. (80-81)

Nobelan askotan Nerea bere aitari nola zuzentzen zaion nabaritzen da:

Gero, badakit eztabaidan aritu zinetela, Londresen ateratako argazki hartan bezala entzun egiten nuen aitonaren eskua zure eskumuturrari eusten, ez orduan bezain zoriontsu...

Begiak bildurik nituen, zure eskua sentitu nuen ohazal gainean nire oinaren bila [...] Eta zure gorputza pultsuan nirearen gainean, ohea alderik alde zeharkatzen...

Negargarri zeunden. Ileak nahasi, elastiko ezain hura, hiru egun neramatzan zu ikasi gabe. (81-82)

Irakurtzeko orduan zailtasunak erakusten ditu obra honek, euskara maila nahiko handia delako eta hiztegi maila altua duelako. Beraz, ez da denbora pasarako liburu bat, nobelaz eta tratatzen dituen gaiei buruz pentsatzeko baizik.

Iritzia

Nobela honetan, Iñigo Aranbarrik hainbat gaiari buruz hausnarketa egiten du. Baina ez dira edonolako gaiak, gure inguruan gertatzen direnak dira, errealitatean islatzen diren benetako arazoak. Honek, irakurlea bete-betean istorioan sartzea eragiten du, gai horiei buruz pentsatzen egotera behartzen du. Urrunera joan gabe, haur lapurtuen arazoa gure gizartean presente dagoen zerbait da, nork ez du telebistan horri buruzko notizia bat ikusi? Edo bestetik, Nerearen gurasoen banaketa adibidez; gero eta normalago den arazo bat da, eta liburu honetan, Nereak bakardadean sartzen da horren erruz. Gauza horiek ohartzeko obran kontatzen dena, gure inguruan gertatu ahal denaren antzekoa dela, eta hurbiltasun horrek asko laguntzen du istorioan barneratzen, pertsonaien arazoak benetan sentitzen, istorioaren parte bagina bezala. Hori bai, eleberri hau jende helduarentzat egina dago, edonork ezin dezake liburu hau benetan

ulertu eta ohartu planteatzen dituen arazo guztiei buruz. Adibidez, gertaerak aurrera doazen heinean, konturatzen gara Nerea eta Mateoren istorioak ez direla hain ezberdinak, biak gaztetxo zirela nolabaiteko bakardadea bizi dutela.

Irakurtzeko erraztasunaz hausnarketa txiki bat eginez, esan beharra dago liburu nahasia dela, askotan aurrera eta atzera egiten du denboran, eta hori, erabiltzen duen lexiko zailarekin bateratuz, momentu batzuetan irakurketa astuna bihurtzen du. Era berean, deskribapen ugari izateak, ondo kokatzen laguntzeaz gain, istorioa moteldu egiten du. Esandako gauza hauek batuz, esan daiteke liburuko momentu batzuk astiro-astiro igarotzen direla, azkenean aspergarriak bihurtzen direlarik.

Orain komentatutakoa leuntzeko, hau da, liburuaren irakurketaren erraztasunaren alde egiten duten arrazoiak ere badaude. Liburuan pertsonaia gutxi ageri dira, esan daiteke istorio guztia Nerea eta bere aitona Mateoren inguruan gertatzen dela. Horrek irakurleari irakurketa errazten dio, ez duelako datu asko gogoratu behar, gertakizunak argiak direlako eta horiek baino ez ulertu behar dituelako.

Bibliografia

Zamaontzia, Iñigo Aranbarri, Susa.

Webgrafia

- <http://blogak.donostiakultura.com/liburu-dantza/es/2011/09/13/zamaontzia-inigo-aranbarriren-eleberria/>
- https://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%B1igo_Aranbarri
- http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp
- <http://xuxen.eus/es>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/zamaontzia/zamaontzia.pdf>